

Hiru poematxo
(Julen Urkizaren ohoretan)

1

Urteekin konturatu naiz
Nahiago dudala argitasuna
Ilunpea baino
Urteekin baina
Urteekin konturatu naiz
Hurbilago dudala ilunabarra
Egusentia baino.

2

Idazle suiziden zerrenda bat errepasatzen dut
Zenbat bizinahi zapuztu, zenbat dohain alferrikaldu
Zenbat min
Artista handiak zirelako
Behar baino lehenago galdu genituelako
Miresten omen ditugun
Idazle suiziden zerrendari begira nagoela
Idazle horiez gogoratu naiz
Baita zerrendagileaz ere
Segur aski ez suizida ez artista izango ez den horretaz
Eta pentsatzen hasi naiz zer miresten duen hark
Haiengan
Zerrenda hori paratzen jartzeraino
Ala bizinahia eta dohaina
Ala zaputza eta alferrik galtzea.

3.

Maitasun-istorio guztiak irakurri ditut
Zoritxarreko nahiz zorionekoak
Txantxetan hasi eta benetan amaitu direnak
Esne-bitsetan abiatu eta behazunetan ahitu direnak.

Maitasun-istorio guztiak irakurtzean
Nitaz zer dioten oldozten dut
Kiromantzia-saio batean legez
Lerro-ahurretan neuk bizitakoa zein bizitzeko dudana
Igarri nahian.

Maitasun-istorio guztiak irakurtzen ditut
Nola haragizkoak hala gogo hutsezkoak
Eta ez du axola zelakoa den nirea
Agian maitasun guztiak direlako bat
Agian haiek irakurtzean
Istorio guztiak direlako nire.

Xabier Mendiguren Elizegi
Beasain, 2008ko apirilean